



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko abenduaren 28a

114. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri, ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legean aurreikusitakoak, 2013. urterako luzatzen dituen. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).
- Foru Legea, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga arautzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Legea, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako eraginarekin, erosahalmenaren galera dela-eta. Osoko Bilkurak onetsia (14. or.).
- Foru Legea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (15. or.).
- Foru Legea, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (23. or.).
- Foru Legea, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (24. or.).
- Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (25. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 33. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (27. or.).

---

A saila:  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko abenduaren 20an egindako Osoko Bilkuran, foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2012ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako**

**ZIOEN AZALPENA**

Konstituzioaren 142. artikulua ezartzen du toki ogasunek behar adinako baliabideak izanen dituztela legeak korporazioei esleitzen dizkien eginkizunak betetzeko eta, funtsean, beren tributuez eta Estatukoetan eta autonomia erkidegoetan duten partaidetzaz hornituko dira.

Nafarroak eskumena du toki ogasunen arloan, Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 46. artikulua araberak.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak, toki ogasunei buruzko VIII. tituluan xedatzen duenez, 259. artikuluan zehazki, Nafarroako toki entitateek beren eskumenak erabili eta haien esku utzitako helburuak bete ditzaten, toki ogasunei behar adina bali-

abide emanen zaizkie; baliabide horiek toki ogasunei buruzko foru lege baten bidez arautuko dira, Nafarroaren toki araubide berekiko gaia den aldetik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18.2 artikuluan aurreikusia. Horren bidez zehaztu besterik ez da egiten askitasun finantzarioaren printzipioa, Konstituzioaren 142. artikuluan biltzen dena, bertan jartzen baitu udalek behar adina baliabide izan beharko dutela legeak beren gain uzten dituen eginkizunak betetzeko, eta horretarako beren tributuez eta Estatukoetan nahiz autonomia erkidegoetakoetan parte hartuz hornituko direla.

Aurrekoa betetzeko xedez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 260. eta 261. artikuluetan ezartzen da ezen toki ogasunen baliabide-iturriak izanen direla, besteak beste, beren tributuek eta Foru Komunitatekoetan eta Estatukoetan duten partaidetza.

Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak, I. tituluan, toki ogasunen baliabideen gainekoa baita, 123. artikuluan hain zuzen, zehatzago arautzen du zenbaterainoko partaidetza izanen duten toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan. Ezartzen da, horrela, udal agintaldi bakoitzeko bigarren urteko lehen seihilabetekoan Nafarroako Gobernuak, Toki Araubideko Foru Batzordeak txostena egin ondoren, Nafarroako Parlamentura arau-proiektu bat bidaliko duela non bilduko baita, batetik, zer zenbateko izanen duen toki ogasunek Nafarroako zergetan parte hartzeko funtsak hurrengo lau aurrekontu-ekitaldietan, eta, bestetik, zein izanen den funts hori banatzeko formula, justizia- eta proportzionaltasun-irizpideak kontuan hartuta.

Bestetik, martxoaren 14ko 3/2012 Foru Legeak, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea aldatu

eta haren indarraldia luzatzen duenak, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planaren indarraldia luzatzen du plan berria onetsi arte, plan haren funtsen kargura gastu konpromisoak hartu eta baimentzeko aukera emanez, eta horrexegatik, Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan duten partaidetza funtsa arautzen duen foru lege honetan ez da jaso kapital transferentzien kontzeptua.

Mendebaldeko ekonomietan ez eze Foru Komunitatean eta bertako toki entitateetan ere eragina duen egungo krisi egoera dela eta, komeni da Partaidetza Funtsaren erregulazioaren iraupena murriztea, bi urtekoa izan dadin, betiere pentsatuz egungo egoera hobetu eginen dela, eta horrek hurrengo ekitaldietan zuzkidura oparoagoa izateko bide emanen duela.

Horrekin batera, Nafarroako toki entitateen mapa modu moderno eta eraginkorrean antolatuko duen arau bat egitekotan gaudenez, beste arrazoi bat da funtsaren erregulazioaren iraupena motzagoa izateko, arau horrek ezarriko duen toki entitateen maparen erregulazio berriak hari egokitutako finantzabideak izan ditzan.

Hortaz, foru lege honek, salbuespen gisa eta aipatutako arrazoiak direla eta, bi ekitalditarako arautzen du parte hartzeko funtsaren zuzkidura, 2013 eta 2014rako alegia.

Foru lege honek ezartzen du, lehenengo eta behin, toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbateko orokorra, eta, ondoren, zenbateko hori handitzeko sistema, transferentzia arruntak eta bestelako laguntzak deritzen kontzeptuetan; gehikuntza hori honakoa izanen da: kontsumorako prezioen indizea Nafarroako Foru Komunitatean igo den ehunekoaren parekoa, ekainetik ekainera neurtua.

Transferentzia arruntak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, formula jakin baten bidez banatuko zaizkie udal eta kontzejuei. Banatzeko formulak zuzentasunaren eta proportzionaltasunaren irizpideak kontuan hartu beharko ditu, aipatu printzipio nagusiak zehazten dituzten parametroetan oinarriturik.

Ildo horretan, foru lege honek proposatzen du transferentzia arruntan funtsaren banaketa bat, zeinak, ekitate horizontalaren printzipioa aplikatuz, funts hori partitzen baitu zuzenean toki entitate bakoitzaren gastu beharren arabera eta alderantzizko proportzioan haren ahalmen fiskalarekin, eta horrela bermatzen du gehiago jasoko duela gastu behar handiagoa eta/edo bere baliabideak eskuratzeko ahalmen txikiagoa duenak.

Banaketa-sistema hiru mailatan egituratzen da. Lehenik, Iruñeko udalerriri esleitzen zaio kopuru bat. Bigarrenik, funtsaren gainerakoa beste udalerrien artean banatzen da; eta azkenik, kontzejuen partaidetza finkatzen da, bakoitzari dagokion udalerriri esleitutako kopuruaren gainean, kontzejuak dituen biztanleen kopuruaren arabera.

Iruñeko hiriak duen berezitasuna biztanleen kopuruak ematen dio; izan ere, kopuru horrek eragiten du trataera berezia, finantzaketari dagokionez, beste toki entitateen aldean.

Bigarren mailako banaketa sistemarako, udalerriri bakoitzarentzat bi indize lortu behar dira, bata, gastu beharrena, eta bestea, ahalmen fiskalarena, eta horiek zehazteko bideak taxutu dira estatistikako prozeduretan oinarritu eta Nafarroako toki entitateen sektoreko kontabilitateari buruz dagoen informazioari aplikatuta.

Sei aldagai linealki konbinatuz lortzen da gastu beharren indizea, estatistikoki frogatu baita horiek direla eraginik handiena dutenak tokiko gastu arruntan, haietako bakoitzaren gastua esplikatze-ko ahalmenaren bidez ponderaturik. Honakoak dira aldagai horiek: hiri lurzoru garbiaren azalera, 65 urte edo gehiagoko biztanleen kopurua, etorkinak, azalera guztira eta barreatze-indizea (konzentrazio indizearen alderantzizkoa).

Ahalmen fiskalaren ponderazioa 0,3491 da, hori baita, finantzatu beharreko gastu arruntan guztirakoaren gainean, indize horretan ordezkatzaren diren toki baliabide ekonomikoen baturaren portzentajea. Baliabide horiek honakoak dira: hirilurreko eta landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioak, jarduera ekonomikoen gaineko zerga, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga eta herrilurren aprobeixamenduagatik diru-sarrerak.

Kontzejuen partaidetza, berriz, banaketako hirugarren mailak ezartzen du, udalerriri esleitutako zuzkiduran oinarrituta. Partaidetza hori kalkulatzeko, udalerriri esleitutakoa 100eko 30ez eta kontzejuak udalerriko biztanleriaren guztirakoarekin alderaturik duen biztanleen proportzioaz biderkatzen da. Parametro hori da kontzejuei dagokien gastuaren batez bestekoa, gaur egungo eskumenean banaketa kontuan izanik.

Banaketa formula berri honek ez du erabateko hausturarik eragin nahi egun arte indarra zuen sistemarekin, eta horregatik berme sistema bat ezarri da.

Funtsaren banaketaren azken kapitulua "Beste laguntza batzuk" izenekoa da, honako kontzeptu hauek biltzen dituena: abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legearen arabera, "Iruñearen Hiriburutza

Agiria” kontzeptuagatik Iruñeko Udalerri dagokion zuzkidura; beste zuzkidura bat, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 72.2 artikuluan, interes komunak babestu eta sustatzeko osaturiko toki entitateen federazio edo elkarteentzako laguntza ekonomiko-ei buruz, ezarritakoa betetzeko. Eta, azkenik, beren eginkizun instituzionaletan aritzeagatik euren korporazioko kideei ordainsariak, bilkura-sariak edo egindako gastuen ondoriozko bestelako gastuak ordaintzen dizkieten Nafarroako udal-entzako konpentsazioa” izeneko atalari dagokiona foru lege honetan zehazten den bezala banatuko dena.

## I. KAPITULUA

### Zuzkidura orokorra eta eguneratzea.

#### 1. artikulua. Iraupena

Foru lege honek transferentzia arrunten bidez parte hartzeko funtsak 2013an eta 2014an izanen duen zuzkidura eta banaketa arautzen ditu.

#### 2. artikulua. Funtsaren zuzkidura.

“2013ko ekitaldi ekonomikorako Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan toki entitateek duten parte hartzeko funtsaren zuzkidura 196.580.332 eurokoa izanen da hasieran, eta kopuru hori Nafarroako Aurrekontu Orokorretan agertuko da”

#### 3. artikulua. Funtsaren banaketa.

Toki ogasunen Nafarroako tributuetako partaidetzen funtsa, 2013ko ekitaldirako, honela banatuko da hasiera batean:

1. Transferentzia arruntak: 167.939.611 euro.

2. Bestelako laguntzak:

a) Iruñeko Udalerri, “Hiriburutza Agiria” delakoa-gatik: 22.942.425 euro.

b) Nafarroako udalei, korporazioko kideei ordainketak egiteko: 5.315.239 euro.

c) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari: 383.057 euro.

**4. artikulua.** Aurrekontuan esleitutako diru kopurua.

1. Nafarroako 2013 eta 2014ko ekitaldiei dagoz-kien aurrekontu orokorretako bakoitzean, agertuko da zenbatekoa den toki entitateen Nafarroako Ogasun Publikoko tributuetan parte hartzeko funtsa, zeina banatuko baita aurreko artikuluan aipatzen diren epigrafeetan.

2. Transferentzia arruntak eta bestelako laguntzak xede izanik, funtsak 2014rako esleitutako diru

kopurua zehazteko, 2013. urterako ezarritakoari gehituko zaio kontsumorako prezioen indizeak Nafarroako Foru Komunitatean izandako igoera, ekainetik ekainera neurtua.

## II. KAPITULUA

### Transferentzia arrunten esleipena

**5. artikulua.** Iruñeko udalerrientzako esleipena.

Iruñeko udalerriri 2013rako aurreko urtean jaso zuen zenbatekoa esleituko zaio, betiere 2012. urtearen aldean 2013rako gehitutako portzentajea gehituta, eta hurrengo ekitaldian, 2014koan alegia, aurreko urtean jasotako zenbatekoa esleituko zaio, gehi 4. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritako irizpidearen arabera legokiokoeena.

**6. artikulua.** Gainerako udalerrien artean banatu beharreko zenbatekoa.

Gainerako udalerriek 2013. eta 2014. urteetako ekitaldietan banatuko duten kopurua 3. artikuluko 1. idatz-zatian aurreikusitako kopurua izanen da, Iruñeko udalerriri dagokion esleipena kendu eta gero.

**7. artikulua.** Gainerako udalerrientzako banaketarako formula.

Gainerako udalerrientzako banaketarako formula prozedura honi jarraikiz lortuko da:

a) Lehen fase batean, gastu premien indizea lortuko da gastu premiaren sei aldagai adierazleen konbinazio linealaren bidez, haietako bakoitzak gastu horren azalpenak emateko duen ahalmenaren arabera ponderaturik. Honakoak dira aldagai horiek: hiri lurzoru garbiaren azalera, 65 urte edo gehiagoko biztanleen kopurua, etorkinak, azalera guztira eta barreatze-indizea (kontzentrazio indizearen alderantzizkoa).

b) Bigarren fase batean, udalerrien ahalmen fiskal eta ondarekoaren aldagai adierazleen konbinazio linealaren bidez lortuko da ahalmen fiskalaren indizea, bost sarrera moten arabera likidatutako eskubideen guztizkoan haietako bakoitzak duen pisuaren arabera ponderaturik. Honako aldagai hauek erabiliko dira: lurreko ondasunen gaineko oinarri fiskalak, jarduera ekonomikoaren gaineko zergarena, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergarena eta herrilurren katastro-balioa.

c) Azkenik, gastu beharren indizeari kenduta 0,3491 faktoreak ponderatutako ahalmen fiskala, formula hau aterako da:

$$FTC = 0,9231 \times PPOB + 0,1278 \times PMA65 + 0,3355 \times PURB + 0,1341 \times PPINM + 0,0083 \times PINV-DISP + 0,0074 \times PSUP - 0,2490 \times PCTU - 0,0222 \times$$

PCTR - 0,0760 x PIAE - 0,0995 x PIVTM - 0,0895 x PVCC.

Azalpena:

FTC da udalerrri bakoitzaren banaketa indizea.

PPOB da udalerrri bakoitzaren biztanleria adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoaren biztanleriarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PURB da udalerrri bakoitzaren hiri azalera garbia adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoaren hiri azalera osoarekin alderaturik, Iruña kenduta. Hiri azalera garbia da planoaren arabera azalaren (azalera grafikoa) eta lurzati batuketaren modura hartutako azalaren (azalera alfanumerikoa) arteko aldea.

PMA65 da udalerrri bakoitzean 65 urte edo gehiago dituzten biztanleen portzentajea, Nafarroa osoan 65 urte edo gehiago dituzten biztanle guztien baturarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PPOB da udalerrri bakoitzaren biztanleria adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoaren biztanleriarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PINVDISP da populazioaren kontzentrazio indizearen alderantzikoa adierazten duen portzentajea, honela kalkulatu: udalerrri bateko bizigune bakoitzeko populazioak populazio osoarekin alderaturik osatzen dituen portzentajeen koadratuen batura, Nafarroa (Iruña kenduta) osoko populazioaren kontzentrazioaren indizeen alderantzikoen baturarekin alderaturik.

PSUP da udalerrri bakoitzaren azalera osoa adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoaren azalarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PCTU da udalerrri bakoitzaren hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioaren likidazio-oinarri doitu adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoari dagozkion tributu horren likidazio-oinarri doitu baturarekin alderaturik, Iruña kenduta. Oinarriak merkatu balioen arabera doitzen dira, koefiziente zuzentzaile baten bitartez, zeinak merkatu balioekin alderaturik agertzen duten urruntasunaren arabera handitzen baititu balioak. Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak finkatuko du koefiziente zuzentzaile hori etxebizitzentzat.

PCTR da udalerrri bakoitzaren landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioaren likidazio-oinarria adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoari dagozkion tributu horren likidazio-oinarri guztien baturarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PIAE da udalerrri bakoitzaren jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren oinarri-kuota adierazten

duen portzentajea, Nafarroa osoari dagozkion jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren baturarekin alderaturik, Iruña kenduta; betiere, oinarri-kuotatzat hartzen da nazio, lurralde nahiz udal esparruko kuoten batura, udal errenergua kenduta.

PIVTM da udalerrri bakoitzean trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren eskubide likidatuak adierazten dituen portzentajea, Nafarroa osoari dagozkion zerga honen eskubide likidatu guztirakoarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PVCC da udalerrri bakoitzean herrilurren katastroko balioa adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoko udalerrietako balioen guztirakoarekin alderaturik, Iruña kenduta. Beren mugapean kontzejuak dituzten udalerrien kasuan, kontzejuetan kokaturik ez dauden herrilurren balioa baizik ez da hartzen kontuan.

**8. artikulua.** Gainerako udalerrientzako hasierako esleipena.

1. Aurreko artikuluan aipatzen den formula udalerrri bakoitzeko aldagaien balioei aplikatuz aterako da udal mailako banaketa indizea .

2. Udalerriren batentzat ateratzen den banaketa-indizea negatiboa baldin bada, zero balioa emanen zaio, eta berriz kalkulatu dira gainerako udalerrientzako banaketa-indizeak, haien guztien batuketaren emaitza 1 izan dadin.

3. Banaketa-indizea banatu beharreko kopuruaren gainean aplikatuko da, hori 5. artikuluan arabera kalkulatu baita, udalerrri bakoitzari hasieran dagozkion esleipena lortzeko.

**9. artikulua.** Berme klausularen aplikazioa eta behin betiko esleipenaren kalkulua udal mailan, gainerako udalerrientzat.

1. Aurreko artikuluan ezarritakoa aplikatzeari dagozkionez, udalerriek transferentzia arruntetan jaso beharreko zenbatekoa ez da izango, inola ere, aurreko urteko funtsaren banaketan jasotakoa baino txikiagoa.

2. Baldin eta funtseko partaidetzatik, transferentzia arrunten kontzeptuan, udalerrri bati hasieran esleitutako kopurua aurreko idatz-zatietan ezarritako bermea adinakoa ez bada, behar diren kopuruak kenduko zaizkie, hasieran esleituak zituztenetatik, bermatutakotik goitiko kopuruak lortzen dituzten udalerriei, bakoitzari dagozkion bermearekin alderaturik lortutako igoeraren arabera proportzioan.

**10. artikulua.** Kontzejuentzako hasierako esleipena.

Kontzejuak dituzten udalerrietan, udal horiei esleitutako partaidetzatik parte bat kenduko zaie, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera, kontzejuen artean banatzeko. Entitate horien hasierako partaidetza kalkulatzeko, kasuan kasuko udalaren partaidetza bider % 30 egingen da, eta hori berriz ere bider kontzejuko biztanleen proportzioa, udalerriarren biztanleria osoarekin alderaturik ateratakoa. Udalerriarren hasierako esleipena gelditzen den kopurua izanen da.

**11. artikulua.** Bermearen aplikazioa eta behin betiko esleipenaren kalkulua beren mugapean kontzejuak dituzten udalerrietan.

1. Aurreko artikuluan ezarritakoa aplikatzeari dagokionez, Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko funtsetik kontzejuak eta beren udalerriek transferentzia arruntan kontzeptuan jaso beharreko zenbatekoa ez da izango, inola ere, aurreko ekitaldian funtsa banatzean transferentzia arruntetan jasotakoa baino txikiagoa.

2. Berme hori kontzejuentzat eta dauden udalerrientzat gauzatzeko, baldin eta banaketa formularen aplikazioarekin hartara iristen ez badira, behar diren kopuruak kenduko zaizkie udalerririk berekoak izanik bermetik goitiko kopuruak lortzen dituzten entitateei, 8. artikuluaaren arabera haien esleitutako kopuruetatik, bakoitzak dagokion bermetik izandako igoeraren proportzioan.

**12. artikulua.** Erabilitako aldagaiak.

1. Nafarroako udalerrien arteko banaketa kalkulatzeko behar diren aldagaien balioak foru lege honen eranskinean aipatzen diren iturrietatik lortuko dira. Aldagaien erreferentzia-urtea, banaketa egiten den urteko maiatzaren 1ean eskura dauden Estatistikako Institutu Nazionalaren udalerrietako biztanleriaren azkeneko datu estatistiko ofiziala izanen da. Erreferentzia-urte horretako daturik ez bada, hurbileneko urtekoak hartuko dira.

2. Aurreko idatz-zati horretan xedatutakoa ukatu gabe, trakzio mekanikoko ibilgailuen zergako datuak azken ekitaldiko kontuen espedientetik aterako dira, zeina Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen arabera aurkeztua beharko baitu Toki Administrazio Departamentuan, edo, bestela, ekitaldi horretako bereko aurrekontuaren likidazio espedientetik, Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 227.2 artikuluan eta hura garatzeko xedapenetan xedatutakoaren arabera. Aurreko hori hala ez bada, eskura dagoen azkeneko daturik berriena eguneratuko da, urteko ehuneko 10eko igoera aplikatuz. Aurreko hiru ekitaldieta-

ko daturik ez bada, Nafarroako per capita daturik handienaren arabera kalkulatu da, biztanleria aldagaia oinarritzat hartuz.

3. Kontzejuentzako banaketa kalkulatzeko, erreferentzia-urtetzat hartuko da, banaketa zein urtetan egiten den, urte horretako maiatzaren 1ean datu ofizialak eskura dauden urtea; datuak, betiere, hala Estatistikako Institutu Nazionalaren udalerrien biztanleria-estatistikakoak nola Nafarroako Estatistika Institutuaren kontzejuen biztanleria-estatistikakoak, bietan urte berari buruzkoak izanen dira.

4. Aurreko idatz-zatietan xedatutakoa ukatu gabe, kontzejuen edo udalen mugapeetan aldaketak gertatzen badira eta, aldagaien balioek haien eragina jasaten dutelako, banaketan kontuan hartu behar badira, aldagaien zenbatekoa berriro kalkulatu da, banaketa gertatzen den uneko egoera administratiboari egokitzeko, betiere egoera administratibo horri buruzko datu ofizialik ez badago.

**13. artikulua.** Ordainketa.

1. Toki entitateen Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko funtseko diru kopuruaren ordainketa, transferentzia arruntetan esleitutakoari dagokiona, lau alditan egingen da ekitaldi bakoitzean, eta hiruhileko natural bakoitzaren lehen hamabostaldian ordainduko dira.

2. Lehenbiziko bi aldietako bakoitzean ordainduko da aurreko ekitaldian behin betikoz jasotako kopuruaren ehuneko 25.

3. Hirugarren ordainketa egin aurretik, toki entitate bakoitzarentzako urteko behin betiko esleipena kalkulatu da, eta une horretan aurreko biak osatuko dituen kopuru bat ordainduko da, esleipenaren ehuneko 75era iritsi bitarte, eta laugarren hiruhilekorako utziko da falta den zatia ordainketa.

4. Udalen eta haien mugapeko kontzejuen artean sinatutako hitzarmenik badago, eta hartan hori aipatzen bada, hitzarmenean ezarritako moduan ordainduko zaie entitate horiei, deusetan ukatu gabe hasiera batean entitate bakoitzari dagokion ekarpenaren zenbatekoa banaketa formula aplikatuz kalkulatu.

### III. KAPITULUA

#### Bestelako laguntzen esleipena

**14. artikulua.** Bestelako laguntzen esleipena

Funtseko diru kopuruetan, "Bestelako laguntzak" sailaren barrenean daudenetatik "Hiriburutza Agiria" delakoagatik Iruñeko Udalari dagozkionak, araubide berezi hori ematen duen abenduaren 2ko

16/1997 Foru Legean xedatutakoaren arabera banatuko dira, eta foru lege honen 13. artikuluan transferentzi arruntetarako aurreikusitako modu berean ordainduko.

**15. artikulua.** Nafarroako udalentzako konpentsazioa, hautetsiei karguan aritzeagatik ordaindutakoaren aldera.

Kargu publiko hautatuan aritzeagatik beren korporazioko kideei ordainsariak, bilkura-sariak, kalte-ordainak edo eginkizun publikoetan parte hartzeko eskubide konstituzionalean aritzearen ondorioz sortutako gastuengatik heldu diren bestelako pagamenduak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalentzako konpentsazioa, honela egingen da:

a) Baldin eta udalek alkate eta zinegotzietan ordaintzen badiete, legeria orokorrari jarraikiz, beren karguan denbora osoan edo partzialean aritzeagatik, edo ematen badizkiete bilkura-sariak, kalte-ordainak edo bestelako pagamenduak, kargu publikoan aritzearen ondorio zuzenak direnak, udal horiek ekarpen bat jasoko dute toki ogasunek Nafarroako zergetan parte hartzeko duten funtsetik, ordain horien kostua kitatzeko.

b) Kontzeptu horregatik, udalek urtean jasotzen ahal duten gehienezko ekarpena, 2013. urterako, udala osatzen duten hautetsien kopuruaren arabera, hauteskundeetako legeria orokorrari jarraikiz, honako hau izanen da:

b.1) 3 zinegotzi dituzten udalak: 4.114,15 euro

b.2) 5 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 10.595,95 euro

b.3) 7 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 15.582,34 euro

b.4) 9 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 18.699,21 euro

b.5) 11 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 29.918,32 euro

b.6) 13 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 51.733,70 euro

b.7) 17 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 79.159,04 euro

b.8) 21 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 113.440,58 euro

b.9) 27 zinegotzi hautetsi dituzten udalak: 190.105,92 euro

c) Ekarpene horiek beren xedeari lotuak egonen dira, bakar-bakarrik erabiliko baitira alkate nahiz zinegotzietan aipatu diren kontzeptuengatik ordaintzeko, eta urtero eguneratuko dira, 4. artikuluko 2. idatz-zatian ezartzen den moduan.

d) Ordainketa behin egingen da transferentzia arrunten funts orokorraren bigarren aldiarekin, urte bakoitzaren urtarrilean, jaso nahi duten udalek alde aurretik eskatuta, eta eskabideari ekarpen honek aurreko ekitaldiko zenbatekoa eta xedearren ziurtagiria gehitu beharko diote, halakorik egin bazuten. Baldin eta hautetsiei ekitaldian ordaindutako kopuruak guztira iristen ez badira artikuluhonetan udal bakoitzarentzat ezarritako gehienezko kopurura, kontzeptu honengatik egingen den hurrengo ordainketa kenduko da kopuruaren arteko alde hori.

e) Baldin eta soberakinak gertatzen bada xede hauetarako kontsignazioan, guztira likidatutako kopuruari dagokionez, soberakinak transferentzia arrunten funts orokorrari gehituko zaizkio, zeinari erantsiko baitzaizkio foru lege honetako 12. artikuluan aipatzen den urteko behin betiko esleipena kalkulatu aurretik.

f) Baldin eta defizita gertatzen bada korporazioko kideen gastua konpentsatzeko esleipenean likidazioa egiteko behar den diru kopuruari dagokionez, transferentzia arrunten funts orokorretik hartuko da, foru lege honen 12. artikuluan aurreikusitako urteko esleipen behin betikoa kalkulatu aurretik, edo bestela Toki Administrazioako Departamentuaren Aurrekontuko 4. kapituluko beste edozein kontu-sailetik.

g) Aurreko idatz-zatietan jasotako konpentsazioak deuseztatu edo eten egingen dira, honako kasu hauetan:

1. Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legearen ez-betetzea.

Urte bakoitzerako ematen diren konpentsazioen deuseztapena aplikatuko zaie aipatutako araua ez betetzea ekarri duten jarduketak edo jarduketak, zuzenean edo zeharka, babesten dituzten udal eta kontzejuetako alkateari, alkatetzako taldeari eta udaletako talde eta zinegotzietan.

Nafarroako Gobernuak, urtero eta ekitaldi ekonomikoa itxi aitzin, egiaztatuko du toki entitateek 24/2003 Foru Legea bete dutela.

Legea betetzen ez bada, Nafarroako Gobernuak dagokion toki entitateari igorriko dio eskaera bat kargu publiko hautatuan aritzeagatik kobraturiko ordainsariak itzultzeko. Itzulketa horren kopurua izanen da 24/2003 Foru Legea ez-betetzearekin, zuzenean edo zeharka, lotutako alkate eta zinegotzietan dagokiena.

Toki entitateak eskatzen zaion kopurua itzultzen ez badu, Nafarroako Gobernuak ordaindu gabeko zorra konpentsatuko du datozen ekitaldi

ekonomikoetan kontzeptu beragatik toki entitateak kobratu beharrekoaren kontura.

24/2003 Foru Legea ez betetzeagatik prozesu judizial edo administratiboak ondorioztatzen diren egoeratan, alde batera utzita zein den jatorria, Nafarroako Gobernuak atxikiko ditu 24/2003 Foru Legea ez-betetzearekin, zuzenean edo zeharka, lotutako alkate eta zinegotziei ordaindu beharreko kantitateak. Atxikitze horrek iraunen du epai judizial edo administratibo irmo bat izan bitarte. Epai hori dagoenean, berriz, arestian jasotako deuseztapen- edo itzulpen-baldintzak aplikatuko dira, baldin eta epaian erabakitzen bada aipatu foru legearen ez-betetze erabatekoa nahiz partziala egon dela.

Konpentsazioak atxikitzean, urtez urteko ekitaldiak metatuko dira, prozesu judizial edo administratiboa bukatzen ez den bitartean.

2. Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko 9/2010 Foru Legearen ez-betetzea.

Urte bakoitzerako ematen diren konpentsazioen deuseztapena aplikatuko zaie 9/2012 Foru Legea ez betetzea ekarri duten jarduketak edo jarduketak, zuzenean edo zeharka, babestu dituzten udal eta kontzejuetako alkateari, alkatetzako taldeari eta udaletako talde eta zinegotziei.

Nafarroako Gobernuak, urtero eta ekitaldi ekonomikoa itxi aitzin, egiaztatuko du toki entitateek 9/2010 Foru Legea bete dutela.

Legea betetzen ez bada, Nafarroako Gobernuak dagokion toki entitateri igorriko dio eskaera bat kargu publiko hautatuan aritzeagatik kobratu ordainsariak itzultzeko. Itzulketa horren kopurua izanen da 9/2010 Foru Legea ez-betetzearekin, zuzenean edo zeharka, lotutako alkate eta zinegotziei dagokiena.

Toki entitateak eskatzen zaion kopurua itzultzen ez badu, Nafarroako Gobernuak ordaindu gabeko zorra konpentsatuko du datozen ekitaldi ekonomikoetan kontzeptu beragatik toki entitateak kobratu beharrekoaren kontura.

9/2010 Foru Legea ez betetzeagatik prozesu judizial edo administratiboak ondorioztatzen diren kasuetan, alde batera utzita zein den jatorria, Nafarroako Gobernuak atxikiko ditu 9/2010 Foru Legea ez-betetzearekin, zuzenean edo zeharka, lotutako alkate eta zinegotziei ordaindu beharreko

kantitateak. Atxikitze horrek iraunen du epai judizial edo administratibo irmo bat izan bitarte. Epai hori dagoenean, berriz, arestian jasotako deuseztapen- edo itzulpen-baldintzak aplikatuko dira, baldin eta epaian erabakitzen bada aipatu foru legearen ez-betetze erabatekoa nahiz partziala egon dela.

Konpentsazioak atxikitzean, urtez urteko ekitaldiak metatuko dira, prozesu judizial edo administratiboa bukatzen ez den bitartean.

Konpentsazioen deuseztatzea aplikatuko da, halaber, lokal edo eraikin publikoak entitate edo kolektiboei lagatzeko kasuetan, baldin eta indarkeria laguntzeko edo terrorismoaren, talde terroristen edo legez kanpoko erakundeen apologia egiteko edo haiei gorazarre egiteko egoerak gertatzen badira.

Deuseztatzea aplikatuko da, halaber, arestiko puntuarekin lotuta dauden pintaketak, afixak edo sinboloak nahiz elementuak lokal edo eraikin publikoetan jartzearen kasuetan.

Deuseztapena aplikatuko zaie, halaber, lokal edo eraikin publikoetan burututako ekintzei, baldin eta haietan terrorismoaren biktimei oroimenari irain egiten bazaie, biktimei edo haien familiei ospe txarra, gutxiespena edo umiliatzea dakarten ekintzen bitartez.

**16. artikulua.** Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzako laguntza.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzat funtsaren barrenean esleituriko kopurua ordainduko da transferentzia arruntentzat foru lege honen 13. artikuluan aipatzen den modu berean.

**Xedapen gehigarri bakarra.** Korporazioko kideentzako ordainketetarako esleipena egokitzea.

Korporazioko kideentzako ordainketetarako esleipena, banaketari, ordaintzeko prozedurari eta ordainketen justifikazioari dagokienez, aplikatzekoak diren arauetan jasotako irizpideekin bat etorriko da, kontuan hartuta betiere Nafarroako Gobernuaren ordezkariak eta Nafarroako toki entitateetako ordezkariak gai horretan lortzen dituzten akordioak.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek 2013ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.



**ERANSKINA****Banaketa formulako aldagaiak  
eta aplikazio iturriak**

1. Udalerrri bakoitzaren biztanleria. Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratzen duen datu ofiziala, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

2. Kontzeju bakoitzaren biztanleria. Nafarroako Estatistika Institutuak argitaratzen duen datu ofiziala, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

3. Udalerrri bakoitzean 65 urte edo gehiago dituzten biztanleak. Estatistikako Institutu Nazionalak ematen duen datua, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

4. Hiri azalera garbia. Planoan ageri den azalera (azalera grafikoa) ken lurzatiek batuta duten azalera (azalera alfazenbakizkoa). Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen du datu hori, eta erreferentzia-urtea udalerrietako populazioari buruzko datuaren berbera izaten da.

5. Etorkinak. Nafarroako Estatistika Institutuak argitaratzen duen datu ofiziala, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa.

6. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak emandako azalera osoa

7. Populazioaren kontzentrazio indizearen alderantzizkoa, Nafarroako Estatistika Institutuak emandako datuekin urte bakoitzerako kalkulatuak.

8. Hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzio doituaren likidazio-oinarria. Hori da udalerrri bakoitzeko hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzio likidazio-oinarria, merkatuko balioei doitzeko koefizientearekin biderkatua. Bi horiek Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak

ematen ditu, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaletik datuak harturik, udalerrrien biztanleriari dagokion erreferentzia-urte bererako.

9. Udalerrri bakoitzeko landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioaren likidazio-oinarria. Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen du, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaletik datuak harturik, udalerrrien biztanleriari dagokion erreferentzia-urte bererako.

10. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren oinarri kuota. Nazio kuoten, lurralde kuoten, lokal finkorik gabekoen udal kuoten eta lokal finkoa dutenen udal kuoten batura da, azken horretan udal errekarua kenduta. Datu hauek Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Jarduera Ekonomikoen Erregistroak emandakoak izanen dira.

11. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren eskubide likidatuak. Udalek Toki Administrazio Departamentuari igorritako kontuen likidazio-etatik aterea. Igortzen ez baditu, aplikatuko da zenbatespen bat, kalkulatu dena foru lege honetako 11. artikuluko 2. puntuan ezarritako irizpidearekin.

12. Herrilurren katastroko balioa. Hori da, Nafarroako udalerrri bakoitzarentzat, herri-ondasunen eta haietatik datozenen katastro-balioa, udalerrrien biztanleriari dagokion erreferentzia-urte bererako. Beren baitan kontzejuak dituzten udalerrrien kasuan, ez da sartzeko kontzejuen titulartasunarekin dauden herri-ondasunak. Balio hori Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen du, eta horretarako datuak hartzen ditu Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaletik.

## **Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko abenduaren 20an egindako Osoko Bilkuran foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2012ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren bidez, Nazioko Gobernuak zenbait neurri hartu ditu aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko. Neurriok ezarri dira, Errege Lege Dekretuan adierazten den moduan, oinarri hartuta Konstituzioaren 149.1.13 eta 156.1 artikulua, zeinek Estatuaren esku uzten baitute, bate-tik, eskumen osoa ekonomiaren plangintza orokorrerako oinarriak eta koordinazioa ezartzeko, eta, bestetik, Estatuko eta autonomia erkidegoetako ogasunen arteko koordinazioa eta espainiar guztien arteko elkartasuna.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1.b) artikulua araberak, Nafarroari dagokio, bere foru araubidearen kariaz, Nafarroako Foru Komunitateko funtzionario publikoen estatutu araubidea, Estatuko oinarriko lege-riak sektore publikoko langileei onartzen dizkien funtsezko eskubideak eta betebeharrak errespetatuz. Horretaz baliatuta, Nafarroak araubide berarizkoa du, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileei buruzko foru legeetan jasotakoa.

Nafarroako Foru Komunitatean aurreikusten da aurrekontu-orekaren helburuak betetzea eta, gainera, bere estatus politikotik eta eskumen berekietatik eratorritako sustapen-neurriak ezartzea, lehiakortasunerako eta garapenerako; horrenbestez, defizitaren kontrolari, lehiakortasunari eta

garapenari dagozkien baldintza horiek betetzen baldin badira, Nafarroako langile publikoekiko harremanetatik sortzen diren betebeharrak betetzeko modua badago.

#### **1. artikulua.**

Foru lege honetan xedatutakoa honakoei aplikatuko zaie:

a) Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileei, zein den ere haien araubide juridikoa.

b) Nafarroako Administrazio Publikoetako goi kargudunei eta gainerako behin-behineko langileei, bai eta kargua utzi ondorerako ezarritako prestazioa jasotzen ari diren goi kargudun ohiei ere.

c) Nafarroako Unibertsitate Publikoko langileei.

d) Sozietate eta fundazio publikoen zerbitzuko langileei, bai eta Nafarroako Administrazio Publikoekin lotura duten edo haien menpe dauden gainerako enteetakoei ere, zuzendaritzako langileak barne.

#### **2. artikulua.**

Nafarroako Administrazio Publikoek, 2013ko ekitaldian aplikatzekoak diren aurrekontuen kargura, zilegi izanen dute 2013ko urtarrileko lehenbiziko egunetan paga bat ordaintzeko aurreko artikulua aipatzen dituen langileei, zeinaren zenbatekoa izanen baita langileak ekitaldi horretarako ezarrita dituen ordainsariei dagokien aparteko paga baten adinakoa. Horrek ez du berarekin ekarriko ordainsarien handitze bat, eta ez ditu aldatuko, halaber, Nafarroako Foru Komunitatean 2013rako aurreikusitako helburuak defizit publikoari eta aurrekontu egonkortasunari dagokienez.

#### **Xedapen gehigarri bakarra.**

1. Administrazio publikoek eta Nafarroako sektore publikoaren gainerako organismo eta enteek urtarrileko eta uztailleko lehenbiziko egunetara aurreratzen ahal dute langileei dagokien aparteko pagaren ordainketa.

2. Aparteko pagaren ordainketa aurreratua langile finkoei nahiz aldi baterako langileei eginen zaie, betiere zerbitzu harremana paga aurreratzen denetik sei hilabete gutxienez luzatuko dela aurreikusten bada.

3. Aparteko pagaren ordainketa aurreratua egin ondoren, zerbitzu harremana aurreikusitako epean baino lehenago bertan behera gelditzen bada, ukitutako langileei kasuan kasuko likidazioa eginen zaie, jasotako gehiegizko zenbatekoa itzultzeko eskatuz, beharrezkoa denean.

### **Azken xedapen bakarra.**

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri, ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legean aurreikusitakoak, 2013. urterako luzatzen dituenak.**

### **OSOKO BILKURAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko abenduaren 20an egindako Osoko Bilkuran, foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri, ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legean aurreikusitakoak, 2013. urterako luzatzen dituenak".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2012ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri, ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legean aurreikusitakoak, 2013. urterako luzatzen dituenak**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen bidez, Nafarroako administrazio publikoetako langileen lan baldintzak ukitzen dituzten zenbait neurri ezarri ziren, ekonomiaren eta aurrekontuen egungo egoeran oinarriturik. Neurri horietako gehienek indarraldia 2012. urtera mugatu zen, baina zioen azalpenean aipatzen da aurrerago aztertuko dela haien indarraldia hurrengo urteetara hedatu behar den edo ez.

Presako izaeraz hartutako neurri horietako batzuen indarraldia amaitzekotan dela, eta kontuan hartuta haien onespina eragin zuen egoera ez dela aldatu, beharrezkoa da neurriok 2013. urtera-

ko luzatzea, eta horretarako foru legearen mailako arau bat onetsi beharra dago.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri, ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legean aurreikusitakoak, 2013. urterako luzatzea.

2013. urterako luzatzen dira ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen bidez Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan onetsitako 2012rako presako neurriak; zehazki, 1., 5., 6. eta 8 artikuluetan aurreikusitakoak, betiere 1. artikuluari egindako aldaketekin, foru lege honetako azken xedapenetako lehenean eta bigarrenean agertzen baitira.

Sindikatuak aitortutako ordu-kredituak lehengo egoerara itzuliko dira; hau da, ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legeak ezarritako murrizketaren aurreko egoera berera.

**Xedapen gehigarria.** Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren hogeigarren xedapen gehigarria aldatzen da. Hona testu berria:

"Eskubidea, Nafarroako administrazio publikoetako eskatutako haiekiko harreman funtzionarioal edo administrazio-araubideko harreman kontraktual baten ondorio den eduki ekonomikoko edozein betebeharrak aitor edo likida dezan, lau urteko epean preskribatuko da".

**Azken xedapenetan lehena.** Aldatu egiten da ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen 1.1 artikulua. Honela geldituko da testua:

"1. 2013. urtean ez da aplikatuko harako aurreikuspena, Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioek jarduneko zerbitzua luzatzeari

buruzkoa, Gizarte Segurantzak unean-unean nahitaezko erretiroa hartzeko ezarria duen adinera iritsita, langilearen aurreikuspen sozialeko sistema zein den gorabehera”

**Azken xedapenetan bigarrena.** Aldatu egiten da ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen 1.2 artikulua. Honela geldituko da testua:

“2. Aurreko idatz-zatian adierazitakotik aparte uzten dira nahitaezko erretiroa hartzeko egunean beren aurreikuspen sozialeko sisteman erretiro-saria jasotzeko eskubidea sortzeko ezarritako

gabealdia osatu ez duten langileak, bai eta pensioa osorik kobratzeko beharrezkoak diren kotizazio-urteak osatu ez dituzten langileak. Horrelako kasuetan, jarduneko zerbitzuan segitzen ahalko dute gabealdi hori osatu arte, eta betiere, hirurogeita hamar urteko adinera iritsi arte”

**Azken xedapenetan hirugarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek 2013ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

## Foru Legea, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga arautzekoa.

### OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko abenduaren 20an egindako Osoko Bilkuran, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga arautzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2012ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### Foru Legea, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga arautzekoa

**1. artikulua.** Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga.

Nafarroako Foru Komunitatean aplikatuko da energia elektrikoaren ekoizteko balioaren gaineko zerga, zeinak zergapetzen baitu energia elektrikoaren ekoiztea eta hura sistema elektrikoan (zentral-barretan neurtua) eranstea, Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen IV. tituluaren aipatzen diren instalazioen bidez.

**2. artikulua.** Zergaren ordainarazpena.

Aipatutako zerga ordainaraztean, hori arautzen duen estatu-araudia aplikatuko da.

Aurrekoa gorabehera, zerga ordaintzetik salbuetsita egonen dira energia elektriko berriztagarria ekoizteko instalazioen titularrak edo kotitularrak, horien potentzia instalatu nominala ez bada, instalazio bakoitzeko, 100 kW baino handiagoa.

Zerga ordaintzetik salbuetsita egonen dira, halaber, energia elektriko berriztagarrikoak diren instalazioen titularrak edo kotitularrak, bost urteko epean, dituzten ekoizpen ekipoen ordean ekoizpena handitzen duten beste berri batzuk jartzen dituztenetik kontatzen hasita. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak zehaztuko du zer ezaugarri izan beharko dituen ekipoen berritzeak eta zein portzentaje izan beharko duen gutxienez ekoizpen-handitzeak, salbuespen hori baliatu ahal izateko.

**3. artikulua.** Harmonizazio irizpideak.

Nafarroako Foru Komunitateak errespetatuko ditu Estatuarekin hitzartzen dituen harmonizazio irizpideak.

**Azken xedapena.** Indarrean sartzea eta eraginak.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina.



---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Legea, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako eraginarekin, erosahalmenaren galera dela-eta.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko abenduaren 20an egindako Osoko Bilkuran, foru lege hau onetsi zuen "Foru Legea, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako eraginarekin, erosahalmenaren galera dela-eta."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2012ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Legea, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako eraginarekin, erosahalmenaren galera dela-eta**

**Artikulu bakarra.** Aldi baterako osagarri pertsonal berria, erosahalmenaren galera dela-eta.

1. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileei osagarri pertsonal bat ordainduko zaie 2012an, erosahalmenaren galera dela-eta, uztailean jasotako aparteko ordainsariaren zenbatekoaren parekoa.

2. Ordainsaria 2012a bukatu aitzin ordainduko da, ordainketa bakarrean, eta funtzionario bakoitzari aurreko idatz-zatian ezarritakoarekin bat dagokion zenbatekoa ordainduko zaio.

3. 2012ko uztailearen 1a baino geroago sartzan diren funtzionarioen kasuan, osagarriaren zenbatekoa kalkulatzeko aintzat hartuko da 2012ko abenduaren 31ra bitarte lan eginen duen denbora, halako moduan non adierazitako lehenbiziko data horretan sartzan denak osagarriaren ehuneko

ehun kobratuko baitu, eta gainontzekoei bigarren datara bitarte lan egindako denboraren zati proportzionala ordainduko baitzaie.

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Foru lege hau honako langile hauei aplikatuko zaie:

a) Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileei, zein den ere haien araubide juridikoa.

b) Nafarroako Administrazio Publikoetako goi kargudunei eta gainerako behin-behineko langileei, bai eta kargua utzi ondorerako ezarritako prestazioa jasotzen ari diren goi kargudun ohiei ere.

c) Nafarroako Unibertsitate Publikoko langileei.

d) Sozietate eta fundazio publikoen zerbitzuko langileei, bai eta Nafarroako Administrazio Publikoekin lotura duten edo haien menpe dauden gainerako enteetakoei ere, zuzendaritzako langileak barne.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Kontratua 2012ko abenduaren 31 baino lehen amaitu zaien langileei nola aplikatu.

Kontratua 2012ko uztailearen 1etik abenduaren 31ra bitarteko epean amaitu zaien langileek, likidazioaren unean, kontratuaren iraunaldiaren araberako proportzioan kobratuko dute erosahalmenaren galeragatiko aldi baterako osagarri pertsonal hori.

**Azken xedapena.** Indarrean sartzea eta indarraldia.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Legea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina aldatzekoa.**

### **OSOKO BILKURAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko abenduaren 20an egindako Osoko Bilkuran, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2012ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Foru Legea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina aldatzekoa**

### **ZIOEN AZALPENA**

Foru Legeak zenbait aldaketa egiten ditu ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren.

Lehenik, araudi sektorial berrira egokitu dira gizarteratze-errentarekin eta beste gizarte zerbitzu batzuekin lotuta dauden prestazio eta laguntza publikoen zenbait salbuespen.

Bigarrenik, salbuespena kendu da Estatuko Loteria eta Apustuatarako sozietate estatalak antolatutako loteria, apustu eta zozketetako sarietan, baita Foru Komunitateak, Gurutze Gorriak, Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalak eta antzeko entitate europarrek antolatuetan ere, eta 37. xedapen gehigarrian karga berezi bat sortu da, halako sarietarako, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan. Karga berezitik salbuetsita egonen dira zenbateko osoa 2.500 eurokoa edo horretatik beherakoa duten sariak; zenbateko osoa 2.500 eurotik gorakoa duten sariak, aldiz, karga bereziari lotuta egonen dira, zenbateko horretatik gorako zatiari dagokionez. Karga bereziaren kuota osoa zerga-oinarriari ehuneko 20ko tasa aplikatuz zehaztuko da.

Testuinguru horretan, zehaztu egin da aipatu jokoak ez direnetan izandako irabazi eta galeren zerga araubidea eta, hala, ondare gutxitze gisa konputatuko dira joko horietako galerak, hots, kasuan kasuko zergaldiko irabaziak gainditzen ez dituztenean. Gainerako galerek, hau da, jokoko

irabaziak gainditzen dituztenek, ondare gutxitze gisa konputatu gabe jarraituko dute.

Hirugarrenik, aldaketa garrantzitsu bat egin da urte batean edo epe laburragoan sortutako ondare gehikuntzen eta gutxitzeen zerga-ordainketan; horiek zerga-oinarriaren zati orokorrean sartuko dira. Aldaketa horrek ukitzen ditu epe laburrean izaten diren eta espekulaziotzat jotzen diren ondare elementuen salmentak, zeren eta aurrezkiaren zati berezian, (zerga-ordainketa arinagoarekin, oro har), honako hauek soilik txertatuko baitira: ondare gehikuntzak eta gutxitzeak, hots, eskualdatze dataren aurretik urtebete baino lehenago eskuratutako ondare elementuen eskualdaketak egitean agerian jartzen direnak, edo aurrerapen berarekin (urtebete baino gehiago) eskuratutako balioei dagozkien harpidetza eskubideenak.

Laugarrenik, nabarmen aldatu da ohiko etxebizitzako inbertsiogatikoko kenkaria, eta horrek 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina. Alde batetik, murriztu egin da ohiko etxebizitzako inbertsiogatikoko kenkariaren gehieneko oinarria, hau da, 9.015 eurotik 7.000 eurora, banakako zerga-ordainketan. Beste alde batetik, murriztu egin da kenkarirako aukera, subjektu pasiboak zergaldian lortzen duen errentaren arabera, desberdintasunak ezarritako baterako zerga-ordainketan eta familia ugariei lagunduz. Hori hala izanik ere, araubide iragankor eskuzabala ezarri da 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen ohiko etxebizitza erosi edo zaharberritu duten pertsonentzat edo etxebizitzaren sustatzaileari diru kopuruak ordaindu dizkiotenentzat. Subjektu pasibo horiek 2012ko abenduaren 31ra arte dagoen kenkari araubideaz baliatzen jarraitzen ahalko dute, baina mugaren batekin.

Etxebizitzaren arloan, orobat, nabarmen handitu da alokairuagatikoko kenkaria, urteko muga 900 eurotik 1.200 eurora igo baita.

Bosgarrenik, zerga araubide berri bat sortu da pertsona edo entitate ekintzaileentzat, baita jarduera ekintzaileetako inbertsoreentzat ere.

Jarduera ekintzailea da berriztat jotzen den enpresa edo lanbide jarduera, hau da, beste titulartasun baten bidez lehenago osorik edo hein batean gauzatu ez dena. Ekintzaileentzat jotzen dira enpresa edo lanbide jarduera ekintzaile batean hasten diren pertsona fisikoak. Jarduera hori langile autonomo gisa gara dezakete edo, bestela, zergak errenten egozpeneko araubidean ordaintzen

dituen entitate bateko kide gisa, edo kooperatiba sozietate bateko edo merkataritza sozietate bateko bazkide gisa. Gainera, enpresa txikia izan beharko du eta lau urteko bizia baino laburragoa izan.

Pertsona edo entitate ekintzaileek onura fiskal hauek izanen dituzte: ez dute ordainketa zatikatuak egiteko betebeharririk izanen; eskubidea izanen dute urtebete geroratzeko, bermerik aurkeztu gabe eta berandutza interesik sortu gabe, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga edo sozietatearen gaineko zerga dela-eta sartu beharreko kuota, baita PFEZaren kontura beren langileei egin dizkieten atxikipenak ere; azkenik, ikerketa eta garapen jarduerak eta berrikuntza teknologikokoak egitearen ondoriozko kenkariari dagozkion kopuruak itzultzeko eskatzen ahalko dute.

Jarduera ekintzaileetan inbertitu nahi duten pertsonak edo entitateek zerga pizgarri garrantzitsu bat dute: ehuneko 30eko kenkaria egiten ahalko dute ekintzailetzat jotzen diren entitateen kapitala eratu edo handitzetik heltzen diren akzioen edo partaidetzen harpidetza egitean ordaintzen duten diru kopuruan.

Azkenik, tarifa berri bat eta karga osagarri berri bat ezarri dira, eragina 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dutenak, eta handitu egiten dutenak errentarik altuenen tributazioa.

**Artikulu bakarra.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren manu hauek (testu bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), honela idatzita geldituko dira:

Bat. 7.c) artikulua, bigarren lerrokada. 2012ko otsailaren 12tik aurrera izanen du eragina.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa galarazi gabe, Langileen Estatutuaren 51. artikuluan ezarritakoaren arabera egiten diren kaleratze kolektiboaren kasuetan, edo aipatu Estatutuaren 52.c) artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik gertatzen direnetan, baldin eta, bi kasuetan, arrazoiak ekonomikoak, teknikoak, antolaketakoak, ekoizpenekoak edo ezinbestekoak badira, aipatutako Estatutuan bidegabeko kaleratzeagatik derrigorrezko izaeraz ezarritako mugak gainditzen ez dituen kalte-ordainaren zatia salbuetsiko da.

Bi. 7. artikulua, f) letra kentzea. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

Hiru. 7.k) artikulua, azken lerrokada. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

“Salbuetsiak egonen dira, halaber, gizarte zerbitzuen arloan banakoentzako eta familientzako prestazioak eta laguntzak arautzen dituen ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuan ezarritako prestazio ekonomikoak, bai eta gizarteratze-errenta eta prestazioak eta sorospinak agortuak dituzten langabetuentzako laguntzak ere, biak Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legean ezarriak. Salbuetsiak egonen dira, halaber, jaiotzagatik, adopzioagatik, nor bere kargura haurrak izateagatik, adingabeen harreragatik, zurztasunagatik eta erditze edo adopzio anizkoitzagatik jasotzen diren gainerako prestazio publikoak, bai eta familiaren arloko deialdien bidez ematen diren laguntzak, hala nola jaiotzak sustatzeko eta langileen lan eta familia bizitza bateratzeko neurri osagarriak.”

Lau. 39.6.d) artikulua. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

“d) Zergaldian jokoan izandako galeren ondorioz sortutakoak, zergaldi berean jokoan izandako irabaziak gainditzen badituzte.

Ez dira inoiz ere konputatuko hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren jokoetan parte hartzearen ondoriozko galerak.”

Bost. 54.1.b) artikulua. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

“b) Ondare gehikuntzak eta gutxitzeak, hots, eskualdatze dataren aurretik urtebete baino lehenago eskuratutako ondare elementuen eskualdaketak egitean agerian jartzen direnak, edo aurrerapen berarekin eskuratutako balioei dagozkien harpidetza eskubideenak.

Eskualdatutako ondare elementuek inbertsioak edo hobekuntzak izan badituzte, aurrezkiaren oinarri berezi horretan sartuko dira inbertsio edo hobekuntza horiei (eskualdaketa aurretik urtebete baino lehenago eginei) dagozkien ondare gehitzeak edo gutxitzeak.

Halaber, aurrezkiaren atal berezian integratuko dira ohiko etxebizitza eskuratu edo zaharberritzeagatik kapital moduan jasotako diru-laguntzen ondoriozko ondare-gehikuntzak.”



Sei. 59.1 artikulua aldatzen da, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

“1. Likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

LIKIDAZIO-OINARRIA, ZENBATERAINO (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)	OINARRIAREN SOBERAKINA, ZENBATERAINO (eurotan)	APLIKATZEKO DEN TASA (ehunekoa)
		3.825	13
3.825	497,25	4.674	22
8.499	1.525,53	9.027	25
17.526	3.782,28	13.279	28
30.805	7.500,40	14.675	36
45.480	12.783,40	7.927	40
53.407	15.954,20	34.593	42
88.000	30.483,26	37.000	43
125.000	46.393,26	175.000	44
300.000	123.393,26	Gainerakoa	45”

Zazpi. 62.1 a) artikulua, lehen lerrokada. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

“a) Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza dena edo izanen dena eskuratu edo zaharberritzeagatik kasuko zergaldian ordaindutako kopuruaren ehuneko 15. Kenkari honen gehieneko oinarria 7.000 eurokoa izanen da urtean.”

Zortzi. 62.1 artikulua, h) letra gehitzea. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

“h) Kenkari hau aplikatzeko eskubidea izanen du zergaldiko oinarrien batura, hurrengo lerrokan ezarritakoaren arabera kalkulatua, 20.000 eurotik beherakoa duen subjektu pasiboak. Batura horrek 22.000 eurotik beherakoa izan beharko du abenduaren 31n familia ugariak direnen ohiko etxebizitzaren kasuan, Familia Ugariet buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legean ezarritakoaren arabera.

Ondorio horietarako, zergaldiko oinarriak 55. eta 57. artikuluetan xedatutakoaren arabera zehaztuko dira, gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenen ondoriozko murrizketak gehituta, baita alderdi politikoei egindako ekarpenen eta haien kuoten ondoriozkoak ere, aipatu 55. artikuluan 1. idatz-zatitik 6.era bitartekoetan xedatutakoari jarraikiz. Halaber, gehituko dira ezgaitasuna duten pertsonen alde eraturiko gizarte aurreikuspeneko sistemei eginiko ekarpenengatik, ezgaita-

sunatu duten pertsonen ondare babesturako ekarpenengatik eta kirolari profesionalen gizarte aurreikuspeneko mutualitateari eginiko ekarpenengatik aplikatutako kenkariak, hurrenez hurren hamahirugarren, hamalauugarren eta hamabosgarren xedapen gehigarrietan ezarritakoaren arabera.”

Bederatzi. 62.2. artikulua, lehenengo lerrokada. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

“Ehuneko 15, gehienez ere 1.200 euro urteko, subjektu pasiboak zergaldian bere ohiko helbidea den etxebizitzaren alokairuagatik ordaindu dituen diru kopuruena, betiere ondoko baldintzak tarteko baldin badira.”

Hamar. 75. artikulua, lehen eta bigarren arauak. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

“Lehen. 62.1.h) artikuluan aipatzen diren oinarrien baturaren zenbatekoa, oro har, 40.000 eurotik beherakoa izanen da familia unitate osorako. Batura horrek 44.000 eurotik beherakoa izan beharko du abenduaren 31n familia ugariak direnen ohiko etxebizitzaren kasuan, Familia Ugariet buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legean ezarritakoaren arabera.

Bigarrena. 62.1.a) artikuluan ezarritako kenkariaren gehieneko oinarria 15.000 eurokoa izanen da urtean, familia unitate osorako.

62.1.c) artikuluan ezarritako kenkariaren oinarrien zenbateko osoa 240.000 eurokoa izanen da familia unitate osorako”

Hamaika. Hogeigarren xedapen gehigarria, 2. idatz-zatia. 2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

“2. Kenkari horren zenbatekoa honako diferentzia positibo hau izanen da: aurreko idatz-zatian aurreikusitako etekin garbien zenbateko osoa batu eta konpentsazetik sortzen den saldo positiboari aurrezkiaren oinarri likidagarri bereziaren kargatasak (60. artikuluan jasoak) aplikazetik sortzen den kopuruaren eta aurreko idatz-zatiko ehunekoak aplikatu eta etekin horiek likidazio-oinarri orokorrean sartu izanez gero egokituko litzatekeen kuota osoaren zenbateko teorikoaren arteko diferentzia”

Hamabi. Hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

“Hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. Zenbait loteria eta apustutako sarien gaineko karga berezia.

1. Zerga honi karga berezi baten bidez loturik egonen dira zerga honen mendeko zergapekoek lortzen dituzten sari hauek:

a) Estatuko Loteria eta Apustuatarako sozietate estatalak, Nafarroako Foru Komunitateak edo autonomia erkidegoek antolatutako loteria eta apustuetako sariak, baita Espainiako Gurutze Gorriak antolatutako zozketetakoak eta Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalak baimendutako jokotakoak ere.

b) Era berean, gizarte-laguntzako jarduerak irabazi asmorik gabe egiten dituzten entitateek edo erakunde publikoek antolatutako loteria, apustu eta zozketetako sariak, erakunde horiek Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatukide batean finkatuak badaude eta aurreko lerrokadan adierazitako erakundeen edo entitateen helburu berberak badituzte.

Karga berezia loteria edo apustuko dezimo, frakzio edo kupoi saritu bakoitzari banan-banan ezarriko zaio”

2. Karga berezitik salbuetsita egonen dira 2.500 euroko zenbateko osoa edo hori baino txikiagoa duten sariak. Zenbateko osoa 2.500 eurotik gorakoa duten sariak tributatu egin beharko dute, zenbateko hori gainditzen duen zatiari dagokionez.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa aplikatuko da loteriaren edo apustuaren dezimo, frakzio edo

kupoi gutxienez 0,50 eurokoa denean. 0,50 eurotik beherakoa denean, salbuetsitako gehieneko zenbatekoa, aurreko lerrokadan aipatua, proportzioan murriztuko da.

Saria titulartasun partekatukoa izanez gero, aurreko lerrokadetan aurreikusitako zenbateko salbuetsia hainbanatu egingen da titularkideen artean, bakoitzaren kuotaren arabera.

3. Karga bereziaren zerga-oinarria aurreko 2. idatz-zatian aipatutako zenbateko salbuetsia gainditzen duen sari zenbatekoak osatuko du. Saria gauzazkoa bada, zerga-oinarria honako hau izanen da: konturako sarreraren zenbatekoan murrizketa egin ondoren, sariaren merkatu balioaren zatia, aurreko 2. idatz-zatian aipatutako zenbateko salbuetsia gainditzen duena, agertzen duen zenbatekoa.

Saria titulartasun partekatukoa izanez gero, zerga-oinarria hainbanatu egingen da titularkideen artean, bakoitzaren kuotaren arabera.

4. Karga bereziaren zenbateko osoa izanen da 3. idatz-zatian ezarritako zerga-oinarriari ehuneko 20ko tasa aplikatuta ateratzen dena. Kuota hori murriztuko da 6. idatz-zatian ezarritako konturako sarreraren edo atxikipenen zenbatekoan.

5. Lortutako saria ordaintzen den unean sorraziko da karga berezia.

6. Xedapen gehigarri honetan aipatzen diren sariak konturako sarreraren edo atxikipenaren mende egonen dira, 80. eta 87. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Konturako sarreraren edo atxikipenaren portzentajea ehuneko 20koa izanen da. Konturako sarreraren edo atxikipenaren oinarria karga bereziaren zerga-oinarriaren zenbatekoak zehaztuko du.

7. Xedapen honetan ezarritako sariak lortu dituzten subjektu pasiboek autolikidazio bat aurkeztu beharko dute karga berezi hau dela eta, dagokion zerga zorraren zenbatekoa zehaztuta, eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak ezartzen dituen toki, modu eta epeetan sartu beharko du zenbatekoa.

Dena dela, autolikidazio hori ez da aurkeztu beharko lortutako saria aurreko 2. idatz-zatian ageri den zenbateko salbuetsia baino txikiagoa denean, edo konturako sarrera edo atxikipena egin denean aurreko 6. idatz-zatian ezarritakoari jarraikiz.

8. Ez dira zerga honen zerga-oinarrian sartuko xedapen gehigarri honetan aipatu diren sariak. Horretan ezarritakoaren arabera egiten diren konturako sarrerek edo atxikipenek ez dute murriztuko

zergaren kuota likido osoa, eta ez dira kontuan hartuko 85. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

9. Xedapen gehigarri honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen egindako jokoan ondoriozko sariei”

Hamahiru. Berrogeita laugarren xedapen gehigarria aldatzen da, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

“Berrogeigarren xedapen gehigarria. Aldi baterako karga osagarri bat ezartzea pertsona fisikoen errentari buruzko zergan.

58. artikulua aipatzen duen zergaren kuota osoa ondoko zenbatekoekin igoko da:

a) 59. artikulua aipatzen duen likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalako zerga-tasak aplikatetik heldu dena:

LIKIDAZIO-OINARRIA, ZENBATERAINO (eurotan)	KUOTA OSOAREN IGOERA (eurotan)	OINARRIAREN SOBERAKINA, ZENBATERAINO (eurotan)	APLIKATZEKO DEN TASA (ehunekoa)
		3.825	0
3.825	0,00	4.674	0,50
8.499	23,37	9.027	0,50
17.526	68,50	13.279	1,50
30.805	267,69	14.675	2,00
45.480	561,19	7.927	2,50
53.407	759,37	34.593	3,00
88.000	1.797,16	37.000	4,00
125.000	3.277,16	50.000	5,00
175.000	5.777,16	Gainerakoa	7,00

b) 60. artikulua aipatzen duen aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziari ondoko eskalako zerga-tasak aplikatetik heldu dena:

LIKIDAZIO-OINARRIA, ZENBATERAINO (eurotan)	KUOTA OSOAREN IGOERA (eurotan)	OINARRIAREN SOBERAKINA, ZENBATERAINO (eurotan)	APLIKATZEKO DEN TASA (ehunekoa)
0,00	0,00	6.000,00	1
6.000,00	60,00	18.000,00	3
24.000,00	600,00	Likidazio-oinarriaren soberakina	6

Tributu arloko araudian 59. artikuluko tarifaren edo eskalaren aplikazioa aipatzen baldin bada, eskala hori aplikatuko da, karga osagarria gehituta”

Hamalau. Berrogeita laugarren xedapen gehigarria gehitzea. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

“Berrogeita laugarren xedapen gehigarria. Ekintzaitzat jotzen diren pertsonen edo entitateen eta entitate horietan inbertitzen dutenen zerga araubidea.

#### 1. Jarduera ekintzailearen ezaugarriak.

Jarduera ekintzailea da berritatz jotzen den enpresa edo lanbide jarduera, hau da, beste titulartasun baten bidez aurreko bost urteetan osorik edo hein batean gauzatu ez dena. Jarduera desberdintzat joko da jarduera ekonomikoen gaineko zergan multzo desberdinekoa dena.

Ez da berritatz joko aurreko bost urteetan ekintzailearen ezkontideak gauzatutakoa, ezta aurreko edo ondorengo ahaideek gauzatutakoa edo aipatutako pertsona horietakoren baten partaidetza duen errenta egozpeneko araubideko entitate batek gauzatutakoa ere. Halaber, ez da berritatz joko titularrarengandik eskuratutako jarduera edo ustiapena, ezta titulartasunaren edo enpresa edo lanbide jarduera baten oinordetza izan bada.

Jarduera nagusia ezin da izan ondare higigarri edo higiezin bat kudeatzea, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 33.1.b) artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Jarduera ez da aldi baterako enpresa-elkarteen araubidearen mende egonen, eta ez da enpresa berregituratzeko eragiketa baten ondorioa izanen.

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariari ahalmena ematen zaio idatz-zati honetan xedatutakoa garatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan, foru agindu baten bidez.

#### 2. Pertsona edo entitate ekintzaileak: betebeharrak.

Pertsona edo entitate ekintzaitzat honako betebeharrak hauek betetzen dituztenak hartuko dira:

a) Enpresa edo lanbide jarduera ekintzaile bat hasten duten pertsona fisikoak, edo zergak errenten egozpeneko araubidean ordaintzen dituen entitate bateko kide gisa garatzen dutenak, edo kooperatiba sozietate bateko edo merkataritza sozietate bateko bazkide gisa.

Jarduera entitate juridiko baten bitartez eginez gero, enpresa edo lanbide jarduera ekintzaileari eraketa egunetik gehienez ere hemezortzi hilabete epean eman beharko zaio hasiera.

Ondorio horietarako, enpresa edo lanbide jardueraren hasieratzat joko da ondasun edo zerbi-

tzuak eskuratzen direneko unea, betiere ondasun edo zerbitzu horiek jarduera garatzeko direla berresten bada elementu objektiboen bidez.

b) Enpresa txikia izatea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 50.1.b) artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Hala ere, artikuluko honetako b) letrako b) azpiletrak aipagai duen partaidetzaren ehuneko 25, ondorio horietarako, ehuneko 40koa izanen da.

c) Lau urteko bizia baino gutxiago izatea, jarduera hasi eta ondoko urtarrilaren 1etik hasita.

Jarduera ekintzailea pertsona fisiko batek hasi badu, eta pertsona horrek entitate baten esku jarri badu jarduerari jarraipena ematearren, entitate hori pertsona fisikoaren eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuko da, eta onura fiskalez baliatzen jarraitzeko beharrezkoak diren betebeharrak bere gain hartuko ditu. Letra honetan aipaturiko epearen ondorioetarako, pertsona fisikoak jarduera hasi zuenetik igarotako denbora konputatuko da.

#### 3. Pertsona edo entitate ekintzaileen onura fiskalak.

Pertsona edo entitate ekintzaileek onura fiskal hauek izanen dituzte:

a) Ez dute ordainketa zatikatuak egiteko betebeharrak izanen.

b) Administrazio Tributarioak baimena emanen du, alde aurreko eskaera eginik, bermerik aurkeztu behar izan gabe eta berandutza interesa sorrarazi gabe, sartu beharreko kuota geroratzeko sozietateen gaineko zergan edo pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergan, enpresa edo lanbide jarduera dela eta. Geroratuko kuotaren sarrera zergaldi bakoitzeko aitorten-likidazioa aurkezteko epea bukatzen den egunetik hasi eta hamabi hilabete epean egin beharko da.

c) Administrazio Tributarioak baimena emanen du, alde aurreko eskaera eginik, bermerik aurkeztu behar izan gabe eta berandutza interesa sorrarazi gabe, beren langileei egindako konturako atxikipeak geroratzeko pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergan. Geroratutako kopuruen sarrera hurrengo urteko otsaileko azken eguna baino lehen egin beharko da.

d) Ikerketarako, garapenerako eta berrikuntza teknologikorako jarduerak egitearen ondoriozko kenkariari dagozkion kopuruak itzultzea eskatzen ahalko dute, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 87. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

4. Pertsona edo entitate inbertitzaileen onura fiskalak.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari eta sozietateen gaineko zergari lotutako subjektu pasiboek ehuneko 30eko kenkaria egiten ahalko dute ekintzailatzat jotzen diren entitateen kapitala eratu edo handitzetik heltzen diren akzioen edo partaidetzen harpidetza egitean ordaintzen duten diru kopuruan.

Inbertsoreak pertsona fisikoak badira, kenkari hori aplikatuko da 62.3 artikuluan enpresa eta lanbide jardueretako kenkariatzat ezarritako ezaugarriekin eta baterako mugarekin, sozietateen gaineko zergako araudiari jarraikiz. Inbertsoreak pertsona juridikoak badira, kenkaria batera aplikatuko da, eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 72. artikuluan ezarritako muga berekin.

Kenkari horiek aplikatzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Inbertsioa jasotzen duen entitateak Nafarroako foru araudia aplikatu behar du sozietateen gaineko zergan.

b) Pertsona fisikoa den subjektu pasiboaren partaidetza ezin da izan, zergaldiaren egun bakar batean ere, inbertsioaren xedeko sozietatearen kapital sozialaren edo boto-eskubideen ehuneko 40tik gorakoa. Horretarako, kontuan hartuko da, orobat, subjektu pasiboaren ezkontidearen edo bikotekide egonkorraren partaidetza eta haren odol bereko edo ezkontzako zuzeneko edo alboko ahaideena, hirugarren mailara arte, horiek barne. Partaidetzaren muga hori hiru urtez bete beharko da gutxienez, sozietatea eratzeko edo kapitala handitzeko erabakiak eragina hartzen duen egunetik aurrera.

c) Pertsona juridikoa den subjektu pasiboaren partaidetza ezin da izan, zergaldiaren egun bakar batean ere, inbertsioaren xedeko sozietatearen kapital sozialaren edo boto-eskubideen ehuneko 40tik gorakoa. Partaidetzaren muga hori hiru urtez bete beharko da gutxienez, sozietatea eratzeko edo kapitala handitzeko erabakiak eragina hartzen duen egunetik aurrera.

d) Subjektu pasiboak, pertsona fisikoa bada, bere inbertsioa hartu duen sozietatearen administrazio kontseiluan parte har dezake, baina ezin du inola ere hango betearazpen edo zuzendaritza eginkizunik bereganatu. Ezin izanen du, orobat, inbertsioaren xedeko entitatearekin lan harremanik izan.

e) Akzioak edo partaidetzak hiru urtez gutxienez mantenduko dira subjektu pasiboaren ondarearen barruan.

f) Kenkari hau aplikatzeko ezinbesteko baldintza izanen da Ekonomia eta Ogasun Departamentuak aurretik egiaztatzea inbertsioa hartu duen enpresak lehen adierazitako baldintzak betetzen dituela. Sozietateak hori egoki frogatu beharko du.

#### 5. Erregistroko betebeharrak.

Zerga araubide hau aplikatzeko, subjektu pasiboek pertsona edo entitate ekintzaileen erregistroan inskribatzeko eskaera aurkeztu beharko dute.

Administrazio Tributarioak bidezkoak diren egiaztapenak egiten ditu eskatutako baldintzak betetzen diren egiaztatzeko.

Erregistroko inskripzioa, pertsona fisikoei eta errenta egozpeneko araubidean dauden entitateei dagokienez, beren jardueraren hasieratik egiten ahalko da. Pertsona juridikoak eraketa unetik bere tik inskribatzen ahalko dira.

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariari ahalmena ematen zaio inskripzio hori egiteko prozedura arau dezan eta araubidea aplikatzea bidezkoa den zehatz dezan, foru agindu baten bidez.

#### 6. Ez betetzeak.

Aurreko zenbakietan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada edo erregistroetako datuak zuzenak ez direla edo faltsuak direla egiaztatzen bada, hori aski izanen da erregistroko inskripzioa ukatzeko edo, subjektu pasiboak jadanik inskribatuta baldin badaude, erregistro horretatik baztertzeke.

Ez-betetze horrek gozatutako onura fiskalak galtzea ekarriko du. Horrelakoetan, pertsonak edo entitateak, ez-betetzea gertatu eta hilabeteko epean, onura fiskalak bidegabeki aplikatzearen ondoriozko diru kopuruak eta bidezko berandutza-interesak sartu beharko ditu.

Aurreko 4. idatz-zatian ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada, edo pertsona nahiz entitate ekintzailea Erregistrotik kanpo gelditzen bada, inbertsioa egin duen pertsonak edo entitateak galdu egiten du egindako kenkarirako eskubidea. Halakoetan, subjektu pasiboa behartua egonen da ez-betetzea gertatu den zergaldian zerga horretarako sorrarazitako kuota likidoari gehitzera bidegabeki kendutako diru kopuruak, gehi dagozkien berandutza-interesak”.

**Hamabost.** Hirugarren xedapen iragankorra, 4. idatz-zatia gehitzea. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

“4. 2013ko urtarrilaren 1ean konpentsatu zain dauden eta 2009., 2010., 2011. eta 2012. urteei dagozkien ondare gutxitzeak, 54.1.b) artikuluan aipatzen direnak (2012ko abenduaren 31n indarra duen idazketaren arabera), 54.2.b) artikuluan aipatutako ondare gehikuntzen eta gutxitzeen saldo positiboarekin konpentsatzen jarraituko da.”

**Hamasei.** Hamabosgarren xedapen iragankorra gehitzea. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

“Hamabosgarren xedapen iragankorra. Ohiko etxebizitzako inbertsioaren ondoriozko kenkariari aplikatzen ahal zaion araubide iragankorra: 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi edo zaharberritutako etxebizitzak, bai eta data horren aurretik hasitako obrak eta ordaindutako kopuruak ere.

1. Subjektu pasiboak, baldin eta zergaldiko oinarrien batura, 62.1.h) artikulua bigarren lerrokadan xedatutakoaren arabera zehaztua, 20.000 eurokoa edo handiagoa bada urtean, zilegi izanen du ohiko etxebizitzako inbertsioaren ondoriozko kenkaria aplikatzen jarraitzea 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2012ko abenduaren 31n indarra duten baldintzekin eta betebeharrekin bat, arrazoi hauetakoren batengatik aplikatzen dituen kopuruak direla eta:

a) Ohiko etxebizitza erosi edo zaharberritzeagatik, baldin eta 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi edo zaharberritu bada.

b) Ohiko etxebizitza zaharberritu edo handitzeagatik, aipatu obrak 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen hasi badira.

c) Ohiko etxebizitza eraikitzeako obregatik, obrak 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen hasi badira edo data horren aurretik obren sustatzaileari kopuruak ordaindu bazaizkio.

d) Etxebizitza egokitzeko obregatik edo instalazioengatik (62.1.f) artikulua), baldin eta obra eta instalazio horiek 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen hasi badira.

e) Ezkontza deuseztatzen denean edo dibortzioaren edo banantze judizialaren kasuetan, ezkontzak indarra zuen garaian subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza izan zena erosteagatik, baldin eta izaera hori izaten jarraitzen badu seme-alaba komuentzat eta haur horiekin bizi den aitarentzat edo amarentzat, betiere etxebizitza 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratu bazen.

2. Aurreko atalean xedatutakoa hala izanik ere, kenkariaren gehieneko oinarria 7.000 eurokoa izanen da urtean banakako zerga-ordainketan, eta 15.000 eurokoa urtean baterako zerga-ordainketan.

3. Etxebizitza-kontuetan egiten diren ekarpenen araubidea.

Subjektu pasiboa, baldin eta zergaldiko oinarrien batura, 62.1.h) artikulua bigarren lerrokadan xedatutakoaren arabera zehaztua, 20.000 eurokoa edo handiagoa bada urtean, eta etxebizitza-kontuetan ekarpenak egin baditu 2013ko urtarrilaren 1aren aurretik, araubide honen mende egonen da:

a) Ez du galduko 2013ko urtarrilaren 1aren aurretik egindako kenkarietarako eskubidea, baldin eta 2012ko abenduaren 31n indarra zuten baldintzak eta betebeharrak betetzen baditu.

b) Ez du kenkaririk egiten ahalko 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera etxebizitza-kontuetan egiten diren ekarpenengatik.

4. Subjektu pasiboak, baldin eta zergaldiko oinarrien batura, 62.1.h) artikulua bigarren lerrokadan xedatutakoaren arabera zehaztua, 20.000 eurokoa edo handiagoa bada urtean, ez du galduko 2013ko urtarrilaren 1aren aurretik egindako kenkarietarako eskubidea, erosteko aukera duten etxebizitzaren errentamendu kontratuetako balio erantsiaren gaineko zergaren kuota dela eta ordaindutako kopuruei dagokienez, betiere 62.1.a) artikuluan ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen badira.

Zergaldiko oinarrien batura 20.000 eurokoa edo handiagoa bada, subjektu pasiboak ezin izanen du balio erantsiaren gaineko zergako aipatu kuotei, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera ordaindu ei, dagokien kenkaria egin.

5. 20.000 euroko kopuru hori 22.000 eurokoa izanen da, abenduaren 31n familia ugariak direnen ohiko etxebizitzaren kasuan, Familia Ugarietarako buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legean ezarritakoaren arabera.

Baterako zerga-ordainketa egiten denean, zenbateko horiek honako hauek izanen dira, hurrenez hurren: 40.000 euro orokorrean, eta 44.000 euro abenduaren 31n familia ugariak direnen kasuan.”

**Azken xedapenetako lehena.** Arauak emateko ahalmena.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emanen ditu.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako eraginekin.

## **Foru Legea, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko abenduaren 20an egindako Osoko Bilkuran, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2012ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Foru Legea, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena**

#### ZIOEN AZALPENA

Foru lege honek Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen hiru artikulua aldatzen ditu.

Murriztu egiten ditu subjektu pasiboaren ohiko etxebizitzagatiko salbuespenaren zenbatekoa eta ohiko etxebizitzan aplikatu daitekeen salbuespenaren gutxienekoa, eta aitorpena aurkeztera behar-tzen duen ondasunen edo eskubideen balioaren zenbatekoa ere jaitsi egiten du.

#### **Artikulu bakarra.**

Bat. Ondarearen gaineko Zergari buruzko 13/1992 Foru Legearen 5. artikuluko 7. idatz-zatia aldatzen da. Hona testu berria:

“7. Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko

Foru Legearen Testu Bateginaren 62. artikuluan definitzen denaren arabera (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), 250.000 euro arte gehienez ere”

Bi. Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 28. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzen da. Hona testu berria: “28. artikulua. Likidazio-oinarria.

1. Likidazio-oinarria kalkulatzeko, salbuetsita dagoen gutxienekoagatik zerga-oinarria 311.023,76 euro murriztuko da.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoa aplikatzekoa izanen zaie tributuetan bai betebeharrak pertsonalengatik bai betebeharrak errealengatik ordaintzen dituzten subjektu pasiboak.”

Hiru. Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 36. artikulua aldatzen da.

“36. artikulua. Aitorpena aurkezteko betebeharrak duten pertsonak:

Haien tributuko kuota (zergaren arauarekin bat zehaztua, behin bidezkoak diren kerkariak edo hoberiak aplikaturik) ordaindu beharrekota ateratzen denean aurkeztu behar dute nahitaez aitorpena subjektu pasiboak, edo, kasu hori gertatzen ez denean, haien ondasunen edo eskubideen balioa (zergaren arauarekin bat kalkulaturik) 1.000.000 eurotik gorakoa denean”

**Azken xedapena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

## **Foru Legea, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea aldatzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko abenduaren 20an egindako Osoko Bilkuran, foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea aldatzen duena".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2012ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Foru Legea, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea aldatzen duena**

Ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legeak arautu zuen Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7aren esleipena. Foru lege horren xedea zen errespetatzea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan herritarrek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako egindako ekarpenen gaineko erabakiak eta erabaki horiek gauzatzeko modu zehatzak, halako moduan non ehuneko 0,7an ezarritako ehunekoan sartutako zenbatekoen azken helmuga Nafarroako gobernuz kanpoko erakundeak eta irabazi asmorik gabeko entitateak izanen baitziren, Estatuan bezala. Horretarako, dirua gobernuz kanpoko erakundeen artean banatzen zen, laguntza programak, lankidetzakoak edo ingurumena hobetzekoak egiteko diru-laguntzen kasuko deialdia eginez.

Halere, Nafarroako 2012rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legeko hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriak nabarmen aldatu zuen manu hori; izan ere, aukerakoa bihurtu zuen Nafarroak nahitaez eman beharreko erabilera hori –gobernuz kanpoko erakundeen aldekoa, beren eginkizun humanitarioe-

tarako—. Xedapen horrek funts horien erabilera erabakitzeke askatasun-tarte handia ematen dio Nafarroako Gobernuari, nafarren borondatearen kaltetan betiere, zeren nafarrek uste baitute beren pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako ehuneko 0,7 bideratzen dela irabazi asmorik gabeko entitateen nahiz gobernuz kanpoko erakunde eta elkarteen gizarte-intereseko helburuetara.

Nafarroako 2012rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legeak sortutako egoera hori konpontze aldera, bidezkoa da aurrekontu orokorren foru lege horretan sartutako xedapen hori indargabetzea eta Parlamentu honek 2009ko ekainean onetsitako hasierako tes-tura itzultzea, ehuneko 0,7 hori egiaz bidera dadin gizarte intereseko helburuetara, Nafarroako gizarte entitateen bidez.

#### **Artikulu bakarra.**

Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legeko 2. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

«Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako ehuneko 0,7ko Funtsa» izeneko berariazko kontu-saileko zenbatekoa, soilik bideratu ahalko da Nafarroako gobernuz kanpoko erakundeek eta elkarteek ondoko xedeak lortze aldera egindako lanera: laguntza ematea, nazioarteko garapenerako lankidetzak, prestaziorik gabeko langabetuentzako arreta, ingurumena hobetzea, eta Autonomia Pertsonalari buruzko Legea babesteko eta garatzeko jarduketak».

#### **Xedapen indargabetzailea.**

Indargabeturik gelditzen da Nafarroako 2012rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legeko hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria.

#### **Azken xedapena.**

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean berean hartuko du indarra.



## **Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko abenduaren 20an egindako Osoko Bilkuran, foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2012ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa**

### ZIOEN AZALPENEA

2012rako defizit-helburua betetze aldera Nafarroako Gobernuak hartutako konpromisoari jarraituz, Nafarroako Parlamentuak neurri-sorta bat onetsi du, atzerakada bat dakarrena langile publikoentzat oso sentiberak diren arloetan –esate baterako, lansarrietan eta lan-baldintzetan–, bai eta lehenago negoziazio-gai izandako eskubideak kentzea ere.

2012rako defizit-helburua betetze aldera Nafarroako Gobernuak hartutako konpromisoak berekin ekarri behar du diru-sarrera publikoak sendotzeko nahiz lanpostuak mantentzeko neurriak hartzea.

Lortu nahi denaren aurkakoa lortzen ari dira Nafarroako Gobernuak abian jarritako neurri batzuk.

Langileen arloko neurri jakin batzuen bidez gastua murriztea, zerbitzu publikoek okerrera egitea ekartzeaz gain –gizarte demokratiko, bidezko eta berdintasunezko baten zutabe nagusiak dira zerbitzu publikoak–, eragin negatiboa izaten ari da gure erkidegoko langabezia-tasan, eta, ondorioz, kalte egiten ari zaie familiei eta Nafarroako ekonomiaren aktibazioari.

Ezin dugu ahantzi zerbitzu publiko hobeak dituzten gure inguruko herrialdeak direla krisiaren oldarrari hobekien eusten ari zaizkionak.

Hortaz, beharrezkoa da Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea zuzentzea, bai eta aldatu nahi den foru legeak marraztutako ildoan sakontzen duten dekretuak ere, bai funtzionarioen bai estatutupeko eta lan-kontratuko langileen lanaldia-ri dagokionez, Nafarroako Gobernuaren mendeko enpresa publikoak barne, ekonomia suspertzeko neurriak ezartzen joateko, hazkundearen, enpleguaren eta ongizate estatuaren alde lan eginez.

### **1. artikulua.**

Aldatu egiten da ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen 4. artikulua. Honela gelditzen da:

"4. artikulua. Lanaldia.

1. Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen urte osoko lanaldia 1.592 ordukoa izanen da.

2. Aurreko idatz-zatian finkatutako urteko lanorduen kopuruaren gainean dagokion konpentsazioa aplikatu ondoren, txandaka aritzen diren Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko nahiz haren menpeko erakunde autonomoetako langileek lanpostuan benetan egon beharreko lanaldi hau izanen dute:

a) Goizeko, arratsaldeko eta gaueko txanda: 1.457 ordu urtean.

b) Gauetako txanda finkoa: 1.535 ordu urtean.

c) Goiz eta arratsaldeetako txanda, igande eta jaiegunetan lan eginda: 1.554 ordu urtean.

d) Lanaldi zatitua, igande eta jaiegunetan lan eginda: 1.569 ordu urtean.

e) Lanaldi malgua (basozainak): 1512 ordu.

3. Aurreko idatz-zatian ezarritako ordu konpentsazioetan, baita txandaka, gauetan edo jaiegunetan lan egiteagatik ezarritako konpentsazio ekonomikoetan ere, jasota daude lanpostu guztietan gerta daitezkeen gorabeherak eta berezitasunak oro; besteak beste, txandakako lanaldiak eta txandaren artean informazioa eman beharra, esate baterako.

4. Urteko lanordu kopuruaren banaketa Administrazio Publiko bakoitzak eginen du zerbitzu bakoitzaren beharren arabera. Dagokion Mahaian beharrezko negoziazioa eginda, eta, betiere, ezarritako urteko ordu kopurua errespetatuz, eremu edo langile-talde jakin batzuetan oro har ezartzen denaz bestelako banaketa egin daiteke, baldin eta justifikatzen bada beharrezkoa dela zerbitzu horiek egoki emateko.

## **2. artikulua.**

Aldatu egiten da ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarria. Honela gelditzen da haren testua:

“Bigarren xedapen gehigarria. Foru lege hau nola aplikatu Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publikoetako goi-karguei eta lan-kontratuko langileei.

Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publikoetako goi-karguei eta lan-kontratuko langi-

leei honako hauek aplikatuko zaizkie: 1. artikuluko 1., 4. eta 5. idatz-zatiak, jardunean segitzeari buruzkoak, eta 5. artikulua, zerbitzuagatiko dietei buruzkoa”

### **Azken xedapenetan lehena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

### **Azken xedapen indargabetzailea.**

Foru lege honen bitartez indarrik gabe gelditzen dira ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legetik heldu diren antolamendu arloko lege-xedapen guztiak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetako eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileen lanaldiari eta lanaldi-banaketari buruzkoak, bai eta foru lege honetako xedapenen aurkakoak izan eta onesten diren dekretuak ere.

**Foru Lege proposamena, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 33. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen duena.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Legebiltzarrak, 2012ko abenduaren 20an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 33. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen duen Foru Lege proposamena. Proposamen hori Nafarroa Bai parlamentu-taldeak

aurkeztu zuen, eta 2012ko azaroaren 12ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

